

AUZOKONPOSTEKO BAHETZE-LANAK LARUNBATA, MARTXOAREN 8AN

Auzokonpostatzearen bitartez etxean zelairik ez daukaten familiek herriko berdeguneetan konposta egin dezakete. Getarian auzokonposta egiteko 3 gune daude, Balentziaga kalean, Sahatsagan kalean eta Potzuagan, eta 37 familiak egiten dute auzo konposta. Familia horiek sukaldean sortzen dituzten hondakin organiko guztiak tokian birziklatzen dituzte, etxetik hurbil duten konpost-gunean. Sistema honekin izugarri murrizten dira hondakinak. Getarian auzo konposta egiten duten 37 familien artean 9 tona inguru hondakin murrizten da urtean. Lortzen den konposta, gainera, kalitate apartekoa da, Urola kostan orain arte egin diren konposten azterketek erakutsi duten bezala. Lorategian, baratzean edo loreontzietan erabiltzeko kalitate oneko ongarrria lortzen da konpostatzearen bidez.

Auzokonposta herritarrengana hurbiltzeko asmoz, datorren larunbatean, martxoaren 8an, konpostaren bahetze-lanak egingo dira Getariako frontoian, 11:30atik aurrera. Hurbiltzen direnek ikusi ahal izango dute hainbat hilabeteko konpostatze prozesuaren ondoren konposta nola ateratzen den, eta bahetu ondoren ze itxura duen. Nahi duenak konposta etxera eramateko aukera ere izango du.

Udalak jarritako postuan auzokonpostatzearen inguruko informazioa emango da, eta auzokonposta egiten hasi nahi duenak izen emateko aukera ere izango du. Informazio gehiago jasotzeko, udaletxeko telefonora (943896024) dei dezakete herritarrek. Udalak eskerrak eman nahi die auzotarrei auzokonpostan parte hartu eta ekitaldi hauek auzolanean bideratzeagatik.

Herritar guztiak gonbidatuta zaudete larunbateko ekitaldira!